



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Astearta
2009-11-17

VIIURTEA 1.829 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Berastegiko azoka berezian jende ugari izan zen, Amezketakoan eta Gaztelukoan bezala. I. LAHIDALGA

AZOKA BEREZIEK EMAN DIETE AMAIERA KULTUR ASTEEI

TOLOSALDEA Amezketan, Berastegin eta Gaztelun izan zituzten herenegun azoka bereziak; postu eta jende ugari izan zen guztietan 4

Peio Olanok ezingo du kargu publikorik bete zortzi urtetan

LIZARTZA Espainiako Auzitegi Gorenak bi urtetako espetxe zigorra ere berretsi du 4



Kros Herrikoieko une bat, herenegun. HITZA

Igartzabal eta Etxeberria izan dira azkarrenak

IKAZTEGIETA XIX. Kros Herrikoian 226 kirolarik hartu zuten parte; bazkarian 30 lagun izan ziren 3

Davis Prados jokalaria omenaldi «hunkigarria» egin diote

IBARRA 14 denboraldiz aritu da Ibarako taldean; Castro Urdialesen aurkakoan 5-3 irabazi zuen Ibarrak 3

XII. Txintzarri Eguna ospatu dute kontzertu eta bazkariarekin

ALEGIA Bi abesbatzek eskaini zuten emanaldia herenegun; ondoren bazkaria egin zuten abesbatzako kideek 6



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Eskualdekoak ez dira esku hutsik joan Ferialekutik

Ekonomia » Euskal Herriko Frisoi Txapelketa jokatu zen larunbatean; Asteasuko bi ganaduzalek hartu zuten parte bertan.



Denera, bederatzit baserriatik hurbildu ziren lehiaketan parte hartzeraz.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko hainbat eta hainbat ganaduzalaren biltoki izan zen larunbat goizean Tolosako Ferialekua. Bertan jokatu zen I. Euskal Herriko Frisoi Txapelketa. Denera bederatzit ganaduzalek hartu zuten parte, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroakoak. Hauen artean, 61 buru aurkeztu ziren lehiaketara. Zortzi atal desberdin egon ziren, adinaren arabera banatuta. Horrez gain, hainbat sari berezi ere banatu ziren.

Parte-hartzaileen artean eskualdeko bi baserrikoak zeuden, Asteasukoak biak ere. Zabal Errekondo eta Ondartzabitartekoak. Azken hauek hiru sari eskuratu zituzten, eta beste eskualdekoek berri, bat. Sarien artean banatu ziren bigen txapeladunen txapeladunare-

na, eta behien txapeladunen txapeladunarena. Lehendabizikoa Gatikara joan zen, hau da Bizkaia. Bigarrena berriz, Iraizotzera, Nafarroara. Larunbateko saioan, sari gehienak nafarrentzat izan ziren.

Euskal Erkidegoan guztira, Frisoi Federazioan 358 ustialeku dau-
de, 22.031 behirekin eta Nafarroa-

ko Federazioan, 178 ustialeku, 20.206rekin. Aipatzekoa da gainera, egun, garai zailak ari direla igerotzen ganaduzaleak, eta gehiago esnetarako behiak dituztenak. Txapelketa berri honekin, beraien lana nolabait saritu nahi izan dute Frisoien Federazioetako ardura-

50-55 galdu du Bide Bide Ibizak Paduraren aurka

Saskibaloia » Larunbatean, Usabal kiroldegian jokatu zen norgehiagoka; bi taldeentzat garaipena oso garrantzitsua zen.

Partida etxekoan alde jarri zen hasieran. Minuturik hoberenak jokatuak, uztaia ikusten zuten eta bertarako bidea ere nahiko garbi ikusten zen. Aurkariek aldiz hiruko jaurtiketa gehiegi eginaz ez zuten bidea horren garbi ikusten.

ERREDAKZIOA

Partida kaskar batean Padurakoak beraien esperientzia baliatuz 50-55eko emaitzarekin garaipena Bizkaia aldera eramane zuten. Usabal kiroldegian, bertsoak entzuteko aproposa zen arratsalde batean Bide Bide Ibizak Padura hartu zuten etxean.

Asteburukoan bi taldeek argi zeukaten partidaren garrantzia. Helburua lortzen zuenak pauso bat gertuago izango zuen, maila berdinean jarraitzea. Tolosarrek Haritz eta Mendiluren bajak izan zituzten eta Kikek deialdia osatu zuten kirol honetan jokatzeko duen maisutasuna taldearen mesedetan jarritz.

Bigarren laurdenetik aurrera taldeari argiak itzali zitzaizkion eta bihotzez beteriko ahalegin batean ez zuten lortu partidaren beraien maila erakustea. Azken minutura gauzak berdinduta iritsi ziren. 50ko berdinketarekin kanpotarrek hiruko bat gauzatu zuten. Tolosaren hutsarte eta gero, hiruko jaurtiketa garbia izan zuten berdindu eta partida luzapenera eramateko baina balaioa ez zen uztairik sartu. Errebotean etxekoak falta egin zuten eta denbora beteta zegoela kanpotarrek garrantzitsuak izan zituzten bi jaurtiketa saskiratu zituzten.

Aste honetan derbia izango da Donostian, Easoren aurka 20:00etan, Gaska kiroldegian.

» I. EUSKAL HERRIKO FRISO TXAPELKETAKO SARIAK

12 hilabetez beherako txahalak

- 1. Muskizko (Bizkaia) Murrieta baserrikoa.
- 2. Gatikako (Bizkaia) Ardeo baserrikoa.

12-18 hilabete arteko txahalak

- 1. Gatikako (Bizkaia) Ardeo baserrikoa.
- 2. Gatikako (Bizkaia) Ardeo baserrikoa.

18-24 hilabete arteko bigak

- 1. Gatikako (Bizkaia) Ardeo baserrikoa.
- 2. Muskizko (Bizkaia) Murrieta baserrikoa.

24-30 hilabete arteko bigak

- 1. Aritzuko (Nafarroa) Ramorena baserrikoa.
- 2. Gatikako (Bizkaia) Ardeo baserrikoa.

Bigen txapeladunen txapeladuna eta erreserba

- 1. Gatikako (Bizkaia) Ardeokoa. 12 eta 18 hilabete arteko txahala.

Esnetan dauden 36 hilabete beherako behiak

- 1. Igeldoko (Gipuzkoa) Ondazar-te-gain baserrikoa.
- 2. Gatikako (Bizkaia) Ardeo baserrikoa.

Esnetan dauden 3 eta 4 urte arteko behiak

- 1. Aritzuko (Nafarroa) Ramorena baserrikoa.
- 2. Iraizotzeko (Nafarroa) Lengusuek baserrikoa.

Esnetan dauden 4 eta 5 urte arteko behiak

- 1. Iraizotzeko (Nafarroa) Lengusuek baserrikoa.
- 2. Asteasuko Ondartza Bitarte baserrikoa.

Esnetan dauden 5 urte gorako behiak

- 1. Iraizotzeko (Nafarroa) Lengusuek baserrikoa.
- 2. Muskizko (Bizkaia) Murrieta baserrikoa.

Sari bereziak

- Aberekingo zezenen alaba onena. Iraizotzeko (Nafarroa) Lengusuek baserrikoa. Esnetan dauden 3 eta 4 urte arteko behia zen.
- Txapelketako errape hoberena duen behia. Iraizotzeko (Nafarroa) Lengusuek baserrikoa. Esnetan dauden 4 eta 5 urte arteko behia.

Sari nagusia

- Behien txapeladunen txapeladuna. Iraizotzeko (Nafarroa) Lengusuek baserrikoa izan zen garaile. Esnetan dauden 4 eta 5 urte arteko behia.

Guijarro garaile, Urdiña Txikiko txapelketan

Xakea » Elkarteak antolatuta, hemezortzi bikoteak hartu zuten parte norgehiagokan; bigarren Ernesto Fuente geratu zen.



Txapelketako une bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Herenegun Urdiña Txiki elkarte-ko xake txapelketa jokatu zen. Hemezortzi jokalarik hartu zuten parte, eskualde osotik etorriak. Xake azkar erara jokatu zuten, lehendabizitza bi multzoren arteko liga eginenez eta ondoren bi multzoak postuen arabera gurutzatuz.

Txapelketa Jose Luis Guijarrok irabazi zuen, baina asko sufritu eta gero. Izan ere, bere multzoan hiru jokalarik berdindu zuten lehen postuan eta desberdinketara jo behar izan zuen. Bigarren Ernesto

Fuente billabonatarra izan zen. Hirugarren eta laugarren postuan iazko finala errepikatu zen, Sabino eta Iñaki Etxeberria tolosarren artekoa.

Oraingoan Sabinok irabazi zuen eta podiumera igo ahal izan zuen beste urte batez. Azkenik antolatuak Luzia Berezitasunak sal-tokiak eskainitako sari berezia banatu zuten. Oier Otxoa anoetar gazteak irabazi zuen sari hau.

Hilberria

ISIDORA UGARTEMENDIA SARASOLA

(Juan Bautista Agirrerren alarguna)
Atzo hil zen, 80 urterekin.
-Goian bego-

Seme-alabak: Daniel eta Marian, Amaia eta J. Migel, Jon eta Miren, Jasone eta Josu, Eli eta Jon, Felipe eta Yoli; bilobak: Idoia, Joxemitea Ana, Aitor eta Yoli, Amagoia eta Oscar, Ainhoa, Agurtzane eta Aitor, Leire, Elaia, Koldo, Markel, Alex, Irati; anai-arrebak, birlobak, ilobak, lehengusuek eta gainerako ahaideak.

POLITA IZAN DA ZU MAITATZEA
EZINEZKOA ZU AHAZTEA.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko SEIETAN, LOINAZTAR MARTIN DEUNAREN parroki elizan gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Agerre Haundi baserria.
Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri Beilatokian egongo da.



BEASAIN
2009 azaroren 17a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Familiarteko ginkana eta mendi ibilaldia, bukatzeko

KIROLA ● Anoetako Kirol Asteko eta Asteasuako Mendi Asteko azken ekitaldiak egin zituzten herenegun. Anoeta-koen kasuan, famili artean egindako ginkana bat izan zen igandeko ekitaldia. Abraham Olano kiroldegian 35 familia inguru elkartu ziren eta kirolarekin lotuta ariketak egiten primeran ospatzeko aukera izan zuten (ezkerreko argazkian). Asteasuako Sa-

gain Mendi Taldeak, bere aldetik, mendi ibilaldia antolatu zuen eta ondoren bazkaria egin zuten. 30 lagun inguruk egin zuten Otsabi-Belabieta-Loatzo-Alustiza ibilaldia eta gero bazkaria Alustizan egin zuten (eskubiko argazkian). Bestalde, gogoratu, GPS ikastaroa antolatu dutela Sagainekoek. Hilaren 23, 25, 27 eta 28an egingo dute. IDOIALAHIALGA/SAGAIN MENDI TALDEA



Sariak lortu zituzten korrikalariak. HITZA

Juanjo Igartzabal eta Nerea Etxeberria izan dira irabazleak

Ikaztegieta » XIX. Kros Herrikoian 226 korrikalari aritu ziren; Joxe Mari Garmendia eta Ina Agirre, herriko lehenengoak.

ERREDAKZIOA

Ikaztegieta XIX. Kros Herrikoian irabazleak Juanjo Igartzabal zumarragarra eta Nerea Etxeberria azpeitiarra izan dira. 32:39 eta 40:13 izan dira hurrenez hurren egindako denborak. Lehenengo herritarrek Joxe Mari Garmendia (36:44) eta Ina Agirre (54:46) izan dira. Eta lehenengo beterranoak Cesar Sanz aguraindarrak (33:12) eta Mila Elorza legazpiarra (49:07) izan dira. Saillape-narekin jarraituz, gizezkoetan

bigarrena Xabat Manzisidor azpeitiarra (32:58) izan da eta hirugarrena Miguel Anjel Encina legazpiarra (33:03). Emakumezkoetan bigarrena Aitziber Ibarbia zizurkildarra (41:22) eta hirugarrena Maite Jauregi albiztuarra (41:53) izan ziren. Hauek denak sariak lortu zuten.

Guztira 226 korrikalarik amaitu zuten proba, horietatik 20 emakumezkoak. Gizezkoen saillape-nean ikusten denez, lehia estua izan zen irabazlearen atzetik, segundo gutxi batzuetan sartu baitziren ondorengoak. Probaren ondoren emandako hamaiketako beste behin arrakastatsua izan zen.

Igandean Herri Gintza Elkarteak bere eguna ospatzen zuen. Kros herrikoiaz gain egindako bazkarian 30 lagun inguru elkartu ziren.

Omenaldi hunkigarria David Prados areto futboleko jokalaritari



David Prados, txapela jantzita, omenaldiaren une batean. KLUSK

Ibarra » Omenaldiaren ondoren jokaturako partidari 5-3 irabazi zion Lauburuk Castro Urdiales taldeari.

ERREDAKZIOA

Lauburuk omenaldi hunkigarria egin zion David Prados jokalaritari. 14 denboralditan aritu da Ibarra areto futbol taldean eta larunbatean jaso zuen omenaldi beroa. Bai bere taldekide ohiak bai Prados bera hunkitu ziren ekitaldian zehar.

Hainbat lagun izan ziren bertan, bai federazioko ordezkariak, bai Udalekoak, taldekideak, lagunak eta bere familiako kideek osatzen duten Pilili Peña ere. Azken hauek jarri zioten omenaldiaren ondoren izan zen partidari giroa. Lau-

burutik eskerrak ematen dizkiote omenaldian parte hartu zuten guztiei.

Gauean omenaldiak jarraitu zuen Sendi-Ekintzan egindako afariarekin. 40 lagun inguru izan ziren bertan. Aurrera begira David Prados Gipuzkoako areto futboleko emakumezkoen selekzioaren hautatzailea izango da.

Emozio handiko partida

Lauburuk 5-3 irabazi zion Castro Urdiales taldeari, emozioz betetako partidari. Kalitate handia ikusi zen bi taldeetan. Ibarra 2-0 aurreratu ziren, baina bigarren zatia hasi eta berehala aurkariek berdindu zuten partida. Lauburukoak 4-2 aurreratu ziren, baina Castro Urdialesek beste gol bat sartzea lortu zuen. Minutu eta erdi falta zela sartu zuten etxeok azken gola.

Laburrak

Emozioei buruzko hitzaldia gaur gela balioanizdunean

AMEZKETA ● Aulas Kutxak eskainita hitzaldia egongo da gaur, 18:00etan, Amezketako gela balioanizdunean. *Emozioekin bizitzeko ikastea: emoziozko adimena* izango da hitzaldiaren gaia.

Ginkana ez dela egingo aurreikusten dute

ALEGIA ● Languarre txirridulari elkarrekin antolatzen duen haurrentzako ginkana bertan behera gelditu zen, eguraldi txarra zela-eta. Antolatzaileek azaldu dutenez ez dute aurrerago antolatzeko. Izan ere, hurrengo bi igandetan Xexili Eguna Villabonan (hilaren 22an) eta mendi irteera (hilaren 29an) Udazkenean Kulturaren baitan izango dira.

Adinekoak laguntzaile gisa aritzeari buruzko hitzaldia

TOLOSA ● Nagusilan elkarrekin eta Tolosako Udalak antolatuta, bihar, 18:00etan hitzaldia izango da Kultur Etxeko areto nagusian. *Adinekoak gizarteari laguntzeko gogoz* izenburupean antolatu dute hitzaldia.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Zakurra.** Belauntzan zakur bat galdu zen igandean. Labrador arrazakoa, ile horiduna eta lepoko beltzarekin. Deitu mesedez 645 71 35 20 telefono zenbakira (arratsalde).



15 bat postu bildu ziren herenegun Berastegiko futbol zelaian Azoka Berezian. I. LAHALDAGA

Azoka bereziekin amaitu dituzte Kultur Asteak

Kultura » Berastegin, Amezketan eta Gaztelun herenegun ekitaldiekin amaitu zituzten kulturari eskainitako egunak.

REBEKA CALVO

Kultur asteen garaia da, eskualdeko herri gehienetan antolatuta dituzte kultur ekitaldiak, baina herrietako batzuk bukatu ere, bukatu dira. Modu ederra aukeratu dute, gainera, kultur ekitaldiei amaiera emateko, izan ere, Berastegin, Amezketan eta Gaztelun Azoka Berezia izan zituzten igandean. Gaztelun bertako baserrietako produktuekin osatutako azoka eta gero, meza nagusia izan zuten, eta ondoren bazkaria ere egin zuten Erroizpe Azpiko elkarteak.

Adunan, bere aldetik, mendi irteera eta kantu jira egin zuten larunbatean, eta atzokoan, aldiz, kirolaren inguruko solasaldia izan zuten. Gaurkoan 20:00etan herriko kultur aretoa *Ura zentuz erabili* izeneko hitzaldia eskainiko dute, baina oraindik izango da zer ikusia, Kultur Astea igandean amaituko baitute.

Berastegin 15 postu

Berastegin giro ona izan zuten. Herriko produktuak izan ziren nagusi eta 15 bat postu bisitatu ahal izan ziren herriko futbol zelaian. «Jende asko gerturatu zen eta postuetan salmenta onak egin zituz-



Amezketan ere herriko produktuak erosi ahal izan zituzten. HITZA



Gaztelun jubilatuen bazkariarekin amaitu dute kultur asteburua. I. LAHALDAGA

ten», argitu du Sebas Gartziaarena alkateordeak. Luis Erasok gainera, motozerrarekin egin ohi dituen eskulturak ere erakutsi zituen.

Sariei dagokionez, azoka bertako bi posturi eman zieten diploma eta 50 euro; «lurrak ematen dituen» produktuei dagokionez, Edurne Otermin izan zen saritua eta «etxeko lanik» onenak biltzen zituzten saltokietatik, berriz, herriko eskolako 5. eta 6. mailako gazteak izan ziren onenak.

II. Ardi-Ahari-Bildots txapelketa ere izan zuten. Guztira 9 partaide aurkeztu ziren eta bakoitzari grabatutako zintzarri bat eman zioten. Hiru sari ere egon ziren, hala ere, 100 euroko pentsu-balea eta diploma ere jaso zutenak: Jose Luis Zuloaga (bildots onena), Ramon Saizar (ardi onena) eta Iker Ugartemendia (ahari onena).

III. Animalia erakusketan ere bi sari eman zituzten, animalia txikienei batetik, eta handiei, bestetik.

Biek 50 euroko pentsu-balea jaso zuten; Bizente Atxukarro eta Mikel Aranalde izan ziren, hurrenez hurren, saridunak.

Gazta Lehiaketa ere egin zuten. 15 gaztek hartu zuten parte eta hauek izan ziren irabazleak: Koro Artola (150 euro, diploma eta makila jaso zituen), Arantxa Garaburu (120 euro eta makila), Garaiburuaren ama, Maria Luisa Etxeberria (110 euro eta makila), Josepi Irisarri (90 euro eta makila) eta Eneko Etxeberria (75 euro eta makila).

Bukatzeko, Argazki Rallyko sariak banatzeko ere baliatu zuten Kultur Astearen azken ekitaldia. Irabazleek diploma eta euren argazkiarekin eginko koadroa jaso zuten. Aurtengo rallyn bi maila desberdin jarri dituzte, argazki analogikoena eta digitalena.

Lehenean, mandio, leiho eta atek irudikatu behar izan zituzten eta Idoia Labaien, Josu Martin eta Julen Uranga izan ziren saritua. Argazki digitalak ateratzen zituztenek, aldiz, armiarmen argazkiak atera behar izan zituzten eta Jose Luis Egaña, Ioana Ramos eta Mateo Esnaola izan ziren lehen hirukoak.

Amezketako azoka

Amezketako Kultur Asteko azken ekitaldia ere herenegun egindako azoka izan zen.

Udaletik azaldu dutenez, «ez zen beste bi urtetan izandako hainbeste jende izan, baina salmenta aldetik gustura gelditu direla esan dute postuetakoek».

Azokan postuak jarri zituztenak amezketarrak izan ziren eta mota askotako produktuak izan ziren salgai: artisautza, baratzaiko produktua, gaztak, ezti... Abere ugari ikusteko aukera ere izan zen azokan.

Azokako berritasuna gazta lehiaketa izan zen. Jon Beldarrainek jaso zuen saria, dezenteko aldearekin, epaimahaiak azaldu zuenez. Aurkeztutako gazten maila ez zen oso altua izan, dirudienez gaztagileek garai honetarako gazta gehienak salduta dituztelako.

Igandean ere beste sari bat banatu zen. Amezketaren 400. urteurrena eta Fernando Amezketarra jaio zela 250 urte betetzen dira aurki. Logo lehiaketa bat antolatuta zuten eta Amets Zabala amezketarrak irabazi du. Alde handia aterazio hurrengo sailkatuari.

Zortzi urtean kargu publikorik ezingo du bete Peio Olanok lizartzarrak

Lizartza » Otsailean ezarritako bi urtetako espesxe zigorra ere berretsi du Espainiako Auzitegi Gorenak.

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Gorenak Peio Olanok lizartzarrak zortzi urtetan kargu publikorik ezingo duela bete erabaki du. Urte hauetan, hortaz, Olanok ezingo du ez hauteskundeetan bozkarik eman ez eta inongo alderdi politikoetako ordezkari bezala aurkeztu.

Gaitasunik gabe uzteko zigorrak gain, lizartzarrari pasa den otsailean Entzutegi Nazionalak ezarritako bi urtetako espesxe zigorra ere berretsi du auzitegiak 2007ko irailaren 7an Lizartzako P.Pren Regi-ona Otaola alkatea mehatxatu zuelakoan.

Eraberean, Olanok 12.000 euroko kalte-ordaina eman beharko dio Otaolari, epailearen iritziz mehatxuak «kezka, urduritasuna, ezinegona» eragin ziolako herriko alkateari.

Agintearen kontrako atentatua eta Lizartzara joateko debekua

Fernando Sequeros fiskal eta Otaolaren abokatuak agintearen kontrako atentatua ere egotzeko eskatu zuten, baina Auzitegi Gorenak ez du eskaera onartu. Alkatearen abokatuak, era berean, Olanori Lizartzara gerturatzeko debekua ezartzeko eskatu zuten, baina hau ere atzera bota du auzitegiak.

Laburbilduz Olanok ezingo du zortzi urtetan kargu publikorik bete, Regina Otaolari 12.000 euroko kalte ordaina eman beharko dio eta bi urtetako espesxe zigorra ere ezarri diote.

Afera 2007. urteko irailaren 7koa da, herriko jaietan Otaolak eta Udaltzarako Espainiako banderak udatzeko balkoian eskegi behar zuela, beheran ikurrinak eskuan zituzten hamarka herritar zeuden eta Otaolak dioenaren arabera, Olanok «heriotz mehatxuak» egin zizkion eta «Otaola cabron» zioen kartela eraman zuten.



TXOKOA hitza

HITZAK bi sarrera ditu

LAGUN ARO GBC GRAN CANARIA
saskibalo partidarako

Azaroak 19 • Osteguna • 20:30ean
Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira



HITZAK bi sarrera pare ditu

LUR SAGAR DANTZA EMANALDIRAKO

Azaroak 20 • Ostirala • 20:30ean
Tolosako Leidor antzokian

sarrerak





TURISMOAREN KALITATEA

«Bezeroak ziurtagiriak adierazten duen tamainako kalitatezko zerbitzua espero du»

Euskadin jada 267 dira Turismo Kalitatearen Q-a duten establezimenduak. Zerbitzua, azpiegiturak eta kudeaketa egokia ziurtatzen du egiaztagiriak. Horren adibide da Donostia Turismoa. Barne antolaketari dagokionean, «askoz antolatuago eta sistematizatuago» egiten dute lan, enpresaren baitako baliabide guztiak hobetu dituzte, «egunetz eguneko errazago bilakatuz, baita enpresaren emaitzei begira ere». Manu Narvaez da bertako zuzendaria.

Zeintzuk izan dira turismoarekin loturiko kalitatezko sistema eta programak aukeratzeko arrazoi nagusiak?

Nagusiki, barne antolaketarako lagungarri izan leku guztiak kudeaketa lortu nahi genuen. Modu horretara, bezeroari arreta hobea emateko. Hau da, barne informazioa eta barne kudeaketa hobeto egituratzen bada, hona etortzen denaren bisitariarentzat emaitza askoz hobea izango da.

Ze onura izan du turismo bulegoarentzat Turismo Kalitatearen Q-a lortzeak?

Aipatu berri dudan barne antolaketak hobetzeaz gain, estatu eta nazioarte mailako ziurtagiriak lortzean bezeroak ziurtagiriak adierazten duen tamainako kalitatezko zerbitzua espero du.

Barne antolakuntzan, kudeaketan eta azpiegiturretan ze onorio izan dituzte?

Oso modu argian, nahiz eta denbora asko daramagun lanean, era askoz antolatuago eta sistematizatuago da orain ezartzen ari garena. Enpresaren baitan ditugun baliabide guztiak optimizatu ditugu, eta hobekuntzak nabarmenak dira antolaketamailan. Egunez eguneko errazago bilakatzen da, baita enpresaren emaitzei begira ere.

Bezeroari eskainitako zerbitzuari dagokionean hobekuntzak izan al dira?

Bai noski, informazioaren egituraren birmoldaketari esker, eskaerei erantzuteko azkartasunean irabazi dugu. Bisitariaren galderei azkarrago eta ho-



bito erantzuteko ahalmena dugu.

Kalitatearen kultura sustatzeko ze aldaketa egin dituzte edo egingo dituzte?

Kalitatezko Q ziurtagiriari dagozkion prozedura guztiak txertatzen ari gara. Praktika onen manualak, esaterako. Inguru turistiko osoan eragiten ari gara. Motore gara, inguruko baliabide eta enpresa turistiko guztiak bat egin eta kalitatezko hiriburuaren irudi globala eskaintzeko.

Turismoan lanean ari direnei nola azalduko zenieke Kalitatearen Q-ak duen garrantzia?

Alde batetik, kompetenziaren aurrean kalitatearen ziurtagiriak aurrea hartzeko aukera

«Ziurtagiriari esker eskaerei erantzuteko azkartasunean irabazi dugu»

eman dezakeela kontuan izan behar da. Eta bestalde barne antolamenduen birmoldaketak berak, modu errazean gure erakunde eta enpresen funtzionamendua hobetu eta bezeroekiko erlazioa erraztu dezake. Funtezkooa da turismoan lan egiten dugun guztion elkarlana hiri bezala kalitate irudi bateratua emateko.

Q-arena bezalako sistema gomendatuko al zenuke?

Guri baliagarri izan bazaigu beste askorentzat ere izan daiteke. Enpresaren baliabideak, denborari dagozkionak eta giza baliabideak, optimizatze-ko oso baliagarria da.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

JARDUNBIDE EGOKIAK

Kalitatearekiko konpromisoa eta sentsibilitatea, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionali zuzendutakoa.

TURISMO KALITATEAREN Q-A

Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroen iguripenen betekizunen bermea.

E.FQM BIKAINTASUN EREDUA

Erakundeek kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzen dien programa.

JARRI
TURISMO-KALITATEAREN
Q-A
ZURE ESTABLEZIMENDUAN!

94 607 75 86
94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalitet.net



Villabonako Izaro, Aiora eta Garazi taldeko kideak. KANTUZALE ELKARTEA

Kantu Txapelketako sariak Villabona, Ibarra eta Asteasura

Musika » Taldekakoa, Nortasunarena eta Adierazkortasunarena izan dira eskualdekoek lortu dituzten sariak.

E. MAIZ

Igandean bukatu zen Gipuzkoako XIII. Euskal Kantu Txapelketa. Hainbat kanporaketa pasa ostean, eskualdeko ordezkariek Donostiako Antzoki Zaharrean aritu ziren abesten, banaka edota taldean. Jende lepo egon zen antzokia eta abeslarien lana baloratzen hiru emakume aritu ziren: Labrit abeslaria eta Miren Mujika eta Itziar Zamora irakasleak.

Bakarlarren artean, Irati Odriozola oiartzuarra izan zen garaile eta publikoaren saria ere berak eskuratu zuen. Bigarren sailkatua, Amy Kerkhof bergararra izan zen bere kantuarekin aurkeztu zen, *Lagunen beharra*. Bikotekakoan berriz, Irati Odriozola eta Ane Badiola gailendu ziren eta bigarren geratu zirenak Eneritz Urrutia eta Maialen Arratibel izan ziren.

Taldekakoa Villabona

Villabonako Izaro Otaegik, Aiora Irazustak eta Garazi Esnaolak osaturiko taldeak eskuratu zuen taldekakoen lehen saria Mikel Urdangarinen, *Non geratzen den den*

bora abestiarekin. Bigarren postuan, Arantzeta, Azpeitiako taldeasailkatu zen.

Beste sariak

Beste sarien artean, publikoaren saria, *A Capella* erako abesti onenarena, Nortasuna, Adierazkortasunarena eta kantu berri onenarena dira saritzen direnak.

Eskualdera etorri ziren adierazkortasuna eta nortasunaren sariak. Adierazkortasunarena, Oihane Sarasola ibartarrak eskuratu zuen eta nortasunarena berriz, Naroa Geresta asteasuarrak lortu zuen. Gainerakoak, publikoarena esaterako Irati Odriozola oiartzuarrek eskuratu zuen. *A capella* erako abesti onena berriz Eider Zabaleta oiartzuarrena izan zen eta kantu berri onenarena Lezoko, Lorea Intxaurandietak jaso zuen.

» ESKUALDEKO SARIAK

Taldeak

■ **Izaro Otaegi, Aiora Irazusta eta Garazi Esnaola.** Talde billabonarrak lehen postua eskuratu du.

Beste sariak

■ **Oihane Sarasola.** Adierazkortasunaren saria eskuratu du Ibarra-koak.

■ **Naroa Geresta.** Nortasunaren saria eskuratu du Asteasu-koak.



Oihana Sarasola eta Naroa Gerestak ere saria jaso zuten. KANTUZALE ELKARTEA



Martina sorginak agur esan du

AMASA » Igandean bukatu ziren Amasako aurtengo San Martin jaiak. Meza Nagusiarekin hasi zuten eguna eta jarraian Idi probak izan zituzten plazan. Jende asko elkartu zen, idi probak ikustera. Arratsaldean,

ezkondu eta ezkongabeen arteko herri kirolak ospatu zituzten eta ondoren, amasarrek, datorren urtera arte agur esan zioten Martina sorginari eta XX. Intxorren aldatzea egin zuten. IDOIA LAHIDALGA



Txintxarri abesbatzako kideak. HITZA

XII. Txintxarri Eguna kantuan ospatu dute

Alegia » Alegiako elizan abestu zuten bi abesbatzek. Ondoren, bazkarian bildu ziren abesbatzako kideak.

ERREDAKZIOA

Igandean, XII. Txintxarri Eguna ospatu zuten. Juan Bautista Deunaren elizara hurbildu ziren alegiarrek, bi abesbatzen emanaldia entzuteko aukera izan zuten. Ondoren bazkaria izan zuten.

Eguerdian hasi zen bi abesbatzen emanaldia. Lehenbizi Txintxarri Txiki abesbatzak hiru kantu eskaini zituen Idoia Iraola tolosar gaztearen zuzendaritzapean. Hogeita bost bat gaztek osatzen dute zuzutza. Kandelak piztuta eskuan zizutela sartu ziren elizara, Benito Lertxundiren, *Nere herriko neska-txa maite* abestia kantatuz. Kandelak erabili zituzten hurrengo abesti-tietan ere, azkenean emanaldiaren

amaieran putz egin eta itzali zituzten arte.

Jarraian, helduen abesbatzaren txanda izan zen eta zazpi kantu eskaini zituzten Garbiñe Orbeagozen gidaritzapean. Estilo askotako kantuak eskaini zituzten. Txintxarri Egunari jarraipena, Txintxarri jatetxean eman zioten. Ohi den legez, kantu eta festa giroan egin zuten bazkaria. Bertan izan ziren beste garai batzuetan abesbatzako kantari izan zirenak ere. Izan ere, Txintxarri abesbatza aspaldikoa da eta ugari dira bertatik pasatakoak. Aurten 49 urte bete ditu Alegiako abesbatzak.

Ostiralean Lasarte-Orian

Txintxarri abesbatzak emanaldia eskainiko du datorren ostiralean Lasarte-Oriako Brigiden komentuan. Bertako *Danok kide* guraso elkarteak IV. Musika Topaketak antolatu ditu eta alegiarrak gonbidatuak izan dira. Hamabost kantako emanaldia eskainiko dute, 19:30etik aurrera.

Eskola publikoeko jangeletako langileak gaur ere greban

Ekonomia » Atzo eta gaur beraien lan baldintzak hobetzeko helburuarekin greba egingo dute.

ERREDAKZIOA

Eskualdean ditugun eskola publikoetako jangeletan greba egin zuten atzo eta gaur ere hala egingo dute. Urtebete da langileak beraien lan baldintzak hobetzeko borrokan hasi zirela eta oraindik ez dute erantzunik jaso. Hori salatze-ko, kalera atera behar izan dute beste behin.

Ondorioz, gaur berriro ere langileek greba egingo dute eta gure eskoletako haurrak eta gurasoak, jangela zerbitzurik gabe geratuko dira. Eskola batzuetan guztiz baldintzatuko du haur eta gurasoen eguna eta beste batzuetan berriz, zerbitzu minimo batzuk izango dituzte.

Eskatzen dutena

Eskola publikoetako jangeletako langileek, greba hauekin, hezkuntzako irakasleek dituzten baldintzekin parekatzen hasia eskatu nahi dute, gaur egun baldintza oso ezberdinak baitituzte. Eskatzen dituzten beste baldintzetako batzuk hauek dira: lanaldia ordu erdiz handitzea umeen informarekin egin ahal izateko, heziketa egokia jaso ahal izatea eta langileek umeen kopuruari dagokion ratioa jaitea dira. Berriz ere, gaur langileen aldetik greba deialdiak zein erantzun jasotzen duen ikusi beharko da eta bestetik, eskatzen dutenari kasurik egiten dieten.



Etixeratek IX. Batzar Nazionala egin zuen herenegun Leidor Aretoan. 800 lagundik gora elkartu ziren bertan. I. OTEGI/A.P.

Leidor aretotik manifestazio deialdia egin du Etxeratek hainbat eragileren babesean

Tolosa » Euskal presoan senide eta lagunek urteko balantzea eta azken asteetako gertaerak aztertu zituzten Leidorren.

ASIER IMAZ

Etixeraten IX. Batzar Nazionala herenegun ospatu zen Tolosako Leidor aretoan. 800 lagundik gora elkartu ziren bertan eta Aretoa txiki gelditu zitzaizen.

Etxerateko kideek eta hauei babesa eman zieten 45 eragile sozial, politiko eta sindikalek, herritarrak Bilbora gonbidatu zituzten, hain zuzen ere, 2010eko urtarrilaren 2an Bizkaiko hiriburuan egingo den manifestaziora. 17.30ean abiatuko da martxa Aita Donostiatik eta *Euskal presoak Euskal Herria, dagozkien eskubideen jabe* leloa edukiko du.

Batzarraren ondoren, Etxerateko kideek Zerkausian bazkaldtu zuten. Bertan 625 bazkaldar elkartu ziren, bazkaria eta lekua prestatzen berriz, eskualdeko 100 boluntario inguru ibili ziren lanean.

«Legez kanpo uzteko eskaria»

Manifestazio deialdiaz gain, Tolosan burutu zuten IX. Batzar Nazionalan, Etxerateko kideek urteko balantzea egin zuten: «Lindarren dagoen espetxe politikak sufrimendu arrasto luzea utzi du Euskal Herrian. Milaka dira espainiar eta frantziar estatuetako espetxeetan baldintzarik kaskarretan egon izan direnak. Haien esku-bideak behin eta berriz zapalduak izan dira. Sakabanaketa, bizi osorako zigorra, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak ez askatzea, isolamendua, bakartzea, mehatxuak, kolpeak, irainak, jipoiak, komunikazioen bortxaketa

etengabea eta lekualdatze erabat arbitrarioak, eguneroko ogia dira euskal preso politikoen zentzabak.

Kezka azaldu zuten euskal presoan senide eta lagunek Leidorren. Alde batetik, euren «senideen aurkako errepresioa handitzen ari delako» eta bestetik, azken asteetan bizi izan dituzten gertaerengatik: «Kontrolak bidaetan, mehatxuak, irainak, kriminalizazioa, argazkiak erakusteko debekua eta Etxer-rat bera legez kanpo uzteko eskaria mahai gainean daude».

«Eraso hauen aurrean», Etxeraten erantzuna betikoa izango dela aldarrikatu zuten Tolosan: «elkartasuna». Izan ere, «eragile sozial, sindikal eta politikoen bidez egungo kartzela politika den eskubideen etengabea zapalketa gelditu behar dugu. Denon artean elkartasun uholde bat sortu behar dugu, euskal preso politikoen eskubideak gehiago zapal ez dituzten».

Agirre-Aristorena nagusi

Leitza » Amazabal pilotalekuan Paleta Gomako eta Nafar Jokoetako partidak jokatu dituzte asteburuan.

A. IMAZ

Nafarroako Kluben Arteko Txapelketan, Paleta Goman, Iera Agirre eta Saioa Aristorenak garai-pen berri bat lortu zuten astebu-

ruan, etxean, Oberenako bikoteari 30-15 irabazi ostean.

Nafar Jokoei dagokionez, esku pilotan, Leitza hiru partida jokatu ziren iragan larunbatean. Aurrierako bi bikoteak galdu egin zuten euren lehia: Beñat Altzelai-Josu Sukuntzak 8-18 eta Ander Alduntzin-Aimar Gilek 3-18.

Garai-pena Xabi Eraso-Ibai Barberena bikoteak lortu zuten Amazabal pilotalekuan, 22-8ko emaitzarekin.

Jaunarena, bihar eta etzi

Jon Jaunarena bi txapelketa jokatzen ari da une honetan: Guillermo Mazoren omenegak eta Donosti-Gain Txapelketa.

Lehenengoari dagokionez, Lehenengoan partida jokatuko du bihar 18:00etan.

Bigarrenari dagokionez berriz, etzi jokatuko du Donostian; finalerdietako partida izango da eta leitzarrak Bolinaga edukiko du lagun bikotea osatzeko orduan.

Euskal Herriko 320 kiloko txapelketan Ibarra hirugarren hasi da

Sokatira » Astigarragan jokatu zen lehen jardunaldia. Bigarrena hilaren 21ean izango da, Arrigorriagan.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko Lauko Sokatira Txapelketa iragan larunbatean hasi zen Astigarragako Auzolan pilotalekuan. Bertan jokatu zen 320 kiloko lehen jardunaldia eta Abadiño talde bizkaitarrak aurreneko bi postuak bereganatu zituen. A taldeak saiko txanda eta B taldeak lau tiraldi galdu zituen soilik.

Oro har, lehen jardunaldi honetako tiraldiak laburrak izan ziren eta, ordu eta erdi iraun zuen saioak.

Pisu horretako bigarren jardun-

naldia heldu den larunbatean jokatuko dute Arrigorriagan.

Ibarrako lauko hirugarren

Txapelketako berrikuntza Ibarra taldea izan zen, ohiko izenen ondoan aritu baitziren ibartarrak. Itxura txukuna eman ostean hirugarren postua erdietsi zuten Lander eta Imanol Oterminek, Mikel eta Joxe Mari Urangak.

Lehen jardunaldia zenez, sailkapen nagusian ere postu berean aurkitzen da Ibarra.

» SAILKAPEN NAGUSIA

1. jardunaldia.	
1. Abadiño A	7 puntu
2. Abadiño B	6 puntu
3. Ibarra	5 puntu
4. Barrundia	4 puntu
5. Sokarri A	3 puntu
6. Auzolan	2 puntu
7. Sokarri B	Puntu 1

'Emakumea Pilotari' Lizartzan eta Getarian

Pilota » Lizartzako pilotalekuan Lehen Mailako ligaxkaren azken hiru partidak jokatu zituzten.

ERREDAKZIOA

Ezker hormako IV. Emakumea Pilotari Txapelketaren 7. jardunaldia jokatu zen asteburuan, larunbatean. Partidak Lizartzako eta Getariako pilotalekuetan jokatu zituzten.

Getariara joan zirenek Bigarren Mailako finalerdia ikusteko aukera eduki zuten, nahiz eta guztira lau partida jokatu ziren.


Egun berean, Lizartzan, Lehen Mailako ligaxkaren azken nor-gehiagokak jokatu ziren. Hemen hiru partida jokatu ziren.

Getariako emaitzak

Bigarren Mailako finalerdietan ondorengo emaitzak lortu zituzten pilotariak: lehenengoan garai-pena Jero-Ezkurdia bikoteak lortu zuten, Garmendia-Aizpurua 30-28 garaitu ostean. Bigarren finalerdia Lizeagak eta Lucasek irabazi zuten, Domingez-Zabala 23an utziz.

Ligaxkaren amaiera

Lizartzan Lehen Mailako ligaxkaren azken hiru partidak jokatu ziren: Espinar-Inziartek 13 eta 30 galdu zuten, Fernandez-Manzisdorren aurka. Etxegia-Arozena 24ean gelditu ziren, Zabala-Mendizabalen aurka. Azken partidaren berriz Arrondo-Goenaga izan ziren garaileak, Ezenarro-Arrizabalaga bikotea 30-20 gairitu ondoren.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



21°
9°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 17°
HOTZENA 7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leiz: 687 410 022. anoeta/leiz@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leiz: 687 410 032. ibarra/leiz@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Sahararen alde Madrilen

TOLOSALDEA 1975ko azaroaren 14an Espainiak Mendebaldeko Sahara Maroko eta Mauritaniaren eskutik utzi zuen. Urtero egun horretan Madrilen manifestazioa antolatzen dute bertan sinatutako akordioari aurka egiteko. Hala, iragan larunbatean ehunka

lagunen artean Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak ere izan ziren, protestarekin bat eginez. Bestalde, gaur Saharako Maratoiaren inguruko diaporama aurkeztuok dute, 20:00etan Tolosako Kultur Etxean. 100 euskaldun animatzeko erronka dute aurten. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

SOLAGÜEN 2004. urteko
ERRESERBAko ardoa



6 botilako kutxa
60€

12 botilako kutxa
72€

SOLAGÜEN 2005. urteko
ardo ONDUA

REMELLURI 2005. urteko
ERRESERBAko ardoa



3 botilako kutxa
40€

6 botilako kutxa
80€

**BRUT NATURE
MAINEGRA**



MENDABIAKO CAVA
Mahats motak: %50 vitona, %35
parellada, %15 chardonnay.
LIGETAN ONDUAK
Hogei hilitzete baino gehiago.
AUKEREN OROKORRA:
Bolumenaren %10, gutxi gorabehera.

6 botilako kutxa
39€

Erosi **berriaren** plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK




Alfar
La Maja

36€

azaroaren 30a arte
943-30 43 45
www.berria.info
harpidetza@berria.info
Bidalketa gastuak doan

Komunitate honen
ataria berritzera goaz



saldu
erosi
alokatu
bilatu
oparitu
...

iragarkilaburrak.com